

KOSTUAK

Atal hau gure negozioaren kostuak zeintzuk diren argitzeko erabiliko dugu, hau da, gure zerbitzuaren diru-irteerak eta dauden mota desberdinak estimatu eta adierazi egingo ditugu. Bi zatitan banatuta egogdo da: alde batetik, hasierako kostuak, eta, beste aldetik, hilabeteko kostua. Hilabeteko kostuaren barruan kostu aldakorak eta kostu finkoak bereizten dira.

Hasteko, proiektua abian jartzeko hasierako kostu batzuk edukiko ditugu eta inbertsio bat egin beharko dugu. Hurrengo taulan gure proiektuari hasierako bultzada emateko izango ditugun kostuak eta diru-irteerak zenbatekoak izango diren estimazioa egingo dugu. Bertan aplikazioa sortzeko eta pertsoneri zabaltzeko beharko dugun inbertsio iniziala azaltzen da:

| HASIERAKO KOSTUAK | | |
|------------------------------|-----------|-----------------------------|
| Aplikazioaren sorrera | | 5.000€ |
| Publizitatea | Irratia | 2.530€ |
| | Facebook | $0,8 \times 2.000 = 1.600€$ |
| | Instagram | $1 \times 2.000 = 2.000€$ |

Plataforma egiteak 5.00€ kostatuko zaigu hitz egin dugun informtikoaren arabera. Publizitateari dagokionez berriz, Irratian 20 segunduko iragarkia jartzea larunbat goiz batean 2.530€-ko gastua da. Fabebook-en 2.000 klip jartzeak gure proiektua promozionatzen 1.600€ kostatuko du eta Instagram-en 2.00€.

| KOSTU ALDAKORRAK | | |
|-------------------|----------------------|------|
| Ekitaldiak | Lokala egun batez | 500€ |
| | Beharrezko materiala | 200€ |

Aurrerago, diru-sarrera finkoak ditugunean, ekitaldiak prestatzen hasiko gara bezeroak beraien artean hobeto ezagutu ahal izateko. Hau ditugun irabazien arabera antolatuko da, horregatik da kostu aldakor bat: ez dakigu zenbat ekitaldi egingo ditugun eta kostuak aldatzen joango dira lekuaren, beharrezko materialaren eta ditugun baldintzen arabera. Batez beste beharko ditugun lokalen alokairua 500€-koa da eta materialarena bestalde 200€-koa.

| KOSTU FINKOAK | |
|-----------------------------|--------------------|
| Soldatak | 3 x 1.500 = 4.500€ |
| Patentea | 800€ |
| Plataformaren mantenimendua | 125€ |

Kostu finkoen kasuan, soldata totalak 4.500€-ko kostua dira. Gure proiektua patentatzeak 800€ eta plataformaren mantenimendua urte osoan zehar 1.500€-koa da; hortaz, hilerok 125€-ko gastua da.

Azkenik, hasierako kostu totala 11.130€-koa da eta kostu aldakorrak eta finkoak kontuan hartuta estimatzen dugu hilerok gure aplikazioak 6.125€-ko diru-irteerak sortuko dituela. Aipagarria da nola gure proiektuak duen kostua nahiko baxua den; izan ere, gure proiektua gure jakintza eta baliabideez baliatuko garelako izango du horrelako kostuekin aurrera egiteko aukera eta horrekin arrakasta edukitzeko gai gara.

